

## GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK 2022KO BIGARREN SEIHILEKORAKO PRESTAKUNTZA-ESKAINNTZA BERRIA AURKEZTU DU

- *Bigarren seihileko honetan 100 ikastaro baino gehiago eskainiko dira, aurrez aurre eta online.*
- *Prestakuntza-eskaintzak hainbat mintegi, tailer, ikastaro eta graduondoko programa eta zerbitzu osagarri biltzen ditu.*
- *2022an, prestakuntza-jardueretan 4.000 ikasle baino gehiago izatea espero da.*
- *Prestakuntza-eskaintza aktiboan dauden langileentzat ez ezik, langabezia daudenentzat eta, bereziki, 30 urtetik beherako gazteentzat ere bada.*

### Donostia - 2022ko irailaren 1a

Gipuzkoako Bazkondeak hainbat prestakuntza-ekintza programatu ditu urteko bigarren seihilekorako, Gipuzkoako enpresetako profesionalak eta zuzendaritzako langileak gaitzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko.

Bigarren seihileko honetarako planteatutako prestakuntza, enpresaren kudeaketa-arloetako trebakuntza-beharrei erantzuteko diseinaturik dago. 2022 honetan online prestakuntza-eskaintzaren aldeko apustua egiten jarraitu da, azken urteetako ildoari jarraituz. Prestakuntza hori eskaintza presentzial zabal batek osatzen du.

Prestakuntza-eskaintzak hainbat mintegi, tailer, ikastaro eta goi-mailako programa biltzen ditu.

- Prestakuntza 13 espezializazio-arlotan
- 4 master eta graduondokoak
- 30 urtetik beherako gazte langabeentzako prestakuntza
- Online prestakuntza
- Neurriko prestakuntza enpresentzat

Aurrez aurreko eskaintzaren barruan MBA Executive eta Nazioarteko Merkataritzako, Fiskalitateko eta Coaching Exekutiboko graduondokoak nabarmentzen dira. Horiek guztiak profesional esperientziadunei zuzenduta daude eta eguneratze eta garapen profesionala bilatzen dute.

Eskaintza honek enpresa-kudeaketako 90 ikastaro baino gehiago hartzen ditu barne: kontseilarietzako tailerrak, zuzendaritza-ardura duten pertsonentzako eta erdi-mailako kargudunentzako prestakuntza espezializatua, merkataritzan, nazioartean, finantzaketan, fiskalitatean, etengabeko hobekuntzan, IKTetan eta sare sozialetan, erosketetan, berdintasunean eta hizkuntzetan espezializatutako programak. Eskaintza gehiena gaztelaniaz bada ere, euskarazko prestakuntzaren bat ere badago, hala nola Branding ikastaroa: nola landu eta komunikatu zure marka.

Lanean dauden profesionalentzako eskaintzaz gain, langabezian dauden 30 urtetik beherako gazteentzako prestakuntza-katalogo zabala jarriko da abian irailetik aurrera. Prestakuntza-planak gazteei enpresetan praktikak egitea edo beren lanbide-proiektua abian jartzeko laguntza ematea eskaintzen die, gazteen laneratzea errazteko.

### **Erreferenteak Gipuzkoan**

2021ean 3.700 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten Gipuzkoako Bazkondeak antolatutako prestakuntza-jardueretan. 2022an kopuru hori gainditzea espero da, 4.000 ikaslerengana iritsiz. Horren ondorioz, Gipuzkoako Bazkondea lurraldea osatzen duten erakunde nagusietako bat da, arautu gabeko prestakuntzaren modalitatearen barruan.

**[Erantsita: Gipuzkoako Bazkondearen Prestakuntza Katalogoa, 2022ko iraila-abendua](#)**

### **Informazio gehiago:**

Jone Lacunza

943 000 310

**[jlacunza@camaragipuzkoa.com](mailto:jlacunza@camaragipuzkoa.com)**